



▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

FILM LABUR ONENAREN GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA

El viaje a Islandia. 2017. César Vallejo. España

Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldiko Nazioarteko Film Laburren Lehiaketaren Gazte Epaimahaiaren saria César Vallejoren *El viaje a Islandia* film laburrarentzako da, 10etik 8,38 puntu jaso ondoren. Erabaki hau Gazte Epaimahaiko kideok hartu dugu, Giza Eskubideekiko sentsibiltatea eta kalitate zinematografikoa kontuan izanik.

Filmak Luis de Marcos Veraren kasua azaltzen du, bera protagonista izanik. Luisek 50 urte ditu eta duela hamar urtetatik esklerosi anizkoitza du. Horren ondorioz 7 urte daramatza ohean mugitu ezinik eta sufrimendu handiarekin. Jasaten duen sufrimendua ez da soilik fisikoa, baita ere psikologikoa, izan ere mugitu ezinak pertsona bezala degradazio handia gertatzea ekartzen du. honen guztiaren aurrean, Luisek aldarrikapen bakarra dauka: heriotza gozoa eta duina nahi du, baina ezin dio inork bere nahia bete.

César Vallejok oso ondo adierazten du film labur honetan, gizarteko tabu handietako bat: heriotza. Baina aldarrikapena ere egiten du, gai honetaz hitz egin behar dela, pertsona askoren errealitatea baita eta ezin du ezkutuan jarraitu. Heriotzaz, lagundutako suizidioaz eta eutanasiaraz gizartean eztabaidatu egin behar da, normalizatu arte.

PREMIO DEL JURADO JOVEN AL MEJOR CORTOMETRAJE

El viaje a Islandia. 2017. César Vallejo. España

El premio del Jurado Joven del Concurso Internacional de Cortometrajes de la 16ª edición del Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián es para *El viaje a Islandia*, con una puntuación de 8,38 puntos sobre 10. Esta decisión la hemos tomado los miembros del Jurado Joven teniendo en cuenta la sensibilización sobre los derechos humanos y la calidad cinematográfica del cortometraje.

El film cuenta el caso de Luis de Marcos Vera, siendo él el protagonista. Luis tiene 50 años y desde hace diez años tiene esclerosis múltiple. A causa de esta enfermedad lleva 7 años postrado en la cama sin poder moverse y con gran sufrimiento. El dolor que sufre no es solo físico, también psicológico, ya que el no poder moverse acarrea un gran degradación como persona. Ante esta situación Luis solo tiene una reivindicación: quiere una muerte dulce y digna, pero nadie puede cumplir su deseo.

César Vallejo expresa muy bien en este cortometraje un gran tabú de la sociedad: la muerte. Pero también hace una reivindicación, que se tiene que hablar de este tema, pues es la realidad de muchas personas y aún sigue escondida. En la sociedad hay que hablar de la muerte, el suicido asistido y la eutanasia hasta que se normalice.